

**EUSKADI JASANGARRIA:
ZAINKETA-HERRIALDE BATERAKO
BELAUNALDIEN ARTEKO ITUNA**



**LA EUSKADI SOSTENIBLE :
PARA UN PAÍS DE CUIDADOS POR UN NUEVO
PACTO INTERGENERACIONAL**

EUSKADI JASANGARRIA: ZAINKETA-HERRIALDE BATERAKO BELAUNALDIEN ARTEKO ITUNA

Euskadi, XXI. mendean, mundura dakartzan baino herritar gehiago galtzen ari da. Hortaz, gehiago dira, honezkero, 65 urtetik gorakoak 19tik beherakoak baino. Biztanleria gutxiagotzen ari denez –3.619 gehiago izan ziren hildakoak jaioak baino 2018ko lehen hiruhilekoan, Eustatek eskuragarri jarri dituen azken estatistiken arabera–, emaitza negatibo horrek gure mapa demografikoa astintzen du, gure eredu sozialak, bizikidetzakoak eta kulturalak aldatzen ditu eta txikiagotzen du ekosistema globalizatu baten barruan betetzen dugun tokia, eta pixkanaka iristen zaizkigun etorkinak dira emaitza negatibo hori orekatzea ahalbidetzen ari den faktorea. Euskaldunon historia, Gizadi osoarena bezala, sortzeko gai izan garen bizitzaren emaitza da. Baina, baita ere, zaintzeko gai izan garen bizitzarena ere, bizi-baldintza onuragarriagoak lortu baititugu, eta luzarazi baitugu bizitza bera duela hamarkada gutxi batzuk pentsaezinak ziren mugetaraino: begirada zertxobait jasota, Espainian, XX. mende hasieran, 34 urteko bizi itxaropena zegoen, eta mende amaieran, 82 urtekoa. **Gure historian zehar, ez dira sekula hainbeste belaunaldi elkarrekin bizi izan, eta, aldi berean, zabaltzen ari da belaunaldien arteko distantzia, eta gero eta bateragaitzagoak dira haien interes desberdinak, gero eta urunduagoak.**

Zaindu behar gaituzte haurdunaldian zehar eta sortzen garen une beretik. Ez dugu aski, nahiz eta garrantzi betekoa izan, bizirauteko eta eboluzionatzeko baliabideak bermatuak izatea. Maitasunez, enpatiaz, samurtasunez elikatu behar da gure bizitza. Behar du, baita ere, sentitzen dugunarekiko konpromisoa: gozaten dugunarekikoa eta pairatzen dugunarekikoa, zernahi delarik ere bata eta bestea. Eta jaiotzen garen unetik senez eskatzen dugun nahikari hori aldatuz doa, denborak aurrera ahala, baina ez da murrizten, ez helduaroan ez zahartzaroan. Zaindu behar gaituzte, ez baitago bestela bizitzerik: haurtzaroan zaindu behar gaituzte; nerabezaro eta gaztaroan, nahiz eta gu premia horren jakitun izan ez; helduaroan, gaixotasun batek jotzen gaituenean; zahartzean, geure kabuz aritzeko gauza ez garenean. **Zaintza behar izatea besteen premia izatea da, zaugarriak baikara, hauskorrak.** Arriskuan baikaude. Gure autonomia behin-behinekoa, erlatiboa eta egoeraren araberakoa baita.

Zaintzen gaituzte, zaintzen dugu eta berriro zaintzen gaituzte, bertutetsua izan dadin saiatu beharko genukeen bizi-zirkulu batean, lagungarria baita gure bizitza pertsonala zentzuz hornitzeko eta komunitate aurreratu eta moderno garen aldetik dugun indarra areagotzeko.

Gizartearen garapen eta aurrerabidearen indarra neurtzerakoan, ezinbesteko irizpidetzat hartu beharko litzateke gizarte horrek bere burua zaintzea lortzea eta bere herritarrei zaintza egokia bermatzea. Pixkanakako teknifikazioak, honezkero giza eta lan harremanen hitzarmenei erronka jo dienak, aukera baliotsuak eskaintzen ditu, aldi berean, Euskadi bezalako eremu gero eta zahartuago batean erakunde publikoek, elkartasunezko ekonomiak eta ekimen pribatuak ematen duten arreta soziosanitarioa hobetzeko. Baina robotek ez dute –oraingoz behintzat– zaintzeko gaitasunik. Ezta ere norbera lehen zaindua izanak eta tokatzen denean edo hala erabakitzen denean inor zaintzeko erantzukizuna onartzeak berekin dakarten gizatasun eta konpromisoaren ondarearen esanahia transmititzeko gaitasuna.

Euskal gizartearen ez da zainketaren erantzukizun eta konpromisoari bizkar emanda bizi. Eta, bere autogobernu-erakundearen eskutik, bizitzaren aldi bakoitzean herritarrak laguntzeko eta babesteko egitura bat eraiki du urratsez urrats. Baina egitura horrek ez du behar besteko aurrerapenez aurreikusi iraulketa demografikoak zekartzan erronkak –gero eta haur gutxiago, gero eta pertsona adindu gehiago–, eta egitura hori ez zen, bestalde, atzeraldi ekonomikoaren azken ziklo luzeak kalterik ez egiteko bezain menderaezina. Ateratzen ari gara, oraindik, krisialditik, ostertz partikular eta globalean egonkortasun ezaren eta ziurgabetasunaren mamua berriz ere agertzen hasi den bitartean. Eta desberdintasunaren argazki berriak bere ertzik zorrotzenak oraindik lausotu ez dituenean.

Une honetan ageri da mugarri saihestezin eta mehatxugarri bat: arrakala bat zabaltzen ari da guraso eta aitona-amonek baino aukera hobekak izan eta gero zahartzen ari diren eta gaztaro eta helduaroan sartzen hasterakoan ziurtasunak ohostu zaizkien belaunaldien artean. Ia gaindiezina bihurtzen ari da agindu zitzaizen eta benetan eskura dezaketen bizimoduen arteko aldea. Itxaroten eta lortzen dugunaren arteko nahitaezko negoziazioa garapen pertsonalaren berezko osagarria da, berezko osagarria ere den bezala frustrazio saihestezina kudeatzea, denok, salbuespenik gabe, harekin ikasi behar baitugu egunero ibiltzen. Baina bada, honezkero, gazteengan sortzen ari den beldur bat: ezin eskuratzea gurasoak, norbanakoaren ongizatearen alorrean –ongizate kolektiboarekin elkar elikatzen baitzuen–, jauzi bat egitera eramán zuten baliabide eta aukerez hornitutako bizimodurik. Beldur dira, honezkero, seme-alabarik izan ezinik biziko direla, edo ez, behintzat, izan nahi lituzketen guztiak edo nahi luketen unean.

Belaunaldien arteko arrakala honek ez du bakarrik biztanleriaren piramidearen beheko aldean ereiten egonezinaren hazia. Belaunaldi guztiei eragiten die, gure gizartearen aintziran jaurtiriko harri batek sortuko lituzkeen uhin zentrokideek bezala. Agureei eragiten die, eta gaur helduaroan daudenei ere, buru-belarri saiatuz seme-alabak zalantzaz gainezka datorren etorkizunaren zingiraz salbatzen, aldi berean aurrekoak zaintzen dituzten bitartean, nahiz eta beraiek ere ez izan batere ziurtasunik, ez beren etorkizunari buruz, ez beraiek zaintzaren premia izango dutenean gertatuko zaienaz. Belaunaldien arteko hitzarmenak haustek bizikidetasun eredu iraultzen du, tenkatzen ari da honezkero kohesio sozialaren zuakerrak –ezberdintasunak leuntzen dituen ‘lekeda’– eta bultzatzen gaitu bizitzari eta harremani buruzko kontzepzio indibidualista eta potentzialki elkertasunik gabe baterantz.

Bizkortu egin da bizitzaren helburuen aldaketa. Helburu horiek, lehen, oinordetzan jasotzen ziren, ez gutxitan, eta gaur, askotan, aurkako norabidetan doaz. Garapen globala hain neurri handian ahalbidetu duten aurrerapen teknologikoek badute ‘B alde’ bat: adinduak ez dira, honezkero, ‘adituak’, beren jakinduriaren estimua beheraka doa, gazteen gaitasun teknifikatuen aldean. Amildegi hori belaunaldien arteko osinaren zati bat da, eta osin horretan eragile berriak ageri dira, esate baterako ‘millennials’ deitzen ditugunak: 1982 eta 2004 artean jaiotako herritarrak, ongizate amaiezinaren ideian heziak, ikasketaren aldetik ongi prestatuak eta digitalki hiperkonektatuak, honezkero ‘amets hautsien kolektibo’ gisa ezagutzen direnak.

Ingurumari honetan, eta zerbitzu soziosanitarioen lubakitik, zainketa-gizarteak lur zakuak metatuz aurre egin izan dio zahartzearen hazkunde geldiezinari, eta ez dago gaur bere jasangarritasuna bermatutzat jotzeko egokieran. **Aitzitik: premiazkoa bihurtzen ari da belaunaldien arteko ituna eguneratzea –belaunaldien arteko kontratu esan gabea, hala nahiago bada–, historian zehar ahalbidetu baitu aitona-amonen, seme-alaben eta biloben arteko kate begiak elkar lotzea. Oso bereziki amonen, alaben eta emakumezko biloben artean.**

Hamarkadetan zehar, segurtasun-uhaleko bikoitz batekin funtzionatu du zahartzean gero eta zaugarriago bilakatzen zirenak artatzeko ereduak. Alde batetik, bazen belaunaldien arteko akordio idatzi gabeko hori, familia tradizionalaren oinarriaren gainean eraikia, zeinaren arabera gurasoek, aurrenik, seme-alabak zaintzen baitzituzten, eta, ondoren, seme-alabek zaintzen baitzituzten gurasoak. Eta, bestetik, **oinordetzan jasotako makinaria sozialean emakumeek bete duten eginkizun erabakigarria**. Emakumeak arduratu dira beren ondorengoez, beren senarrez eta beren gurasoez. Eta, luzaroago bizi direnez –90 urteetara hurbiltzen ari da hemen beren bizi-itzaropena–, egoera paradoxiko batean suerta daitezke: zahartzaroan,

zaugarritasuna eta mendekotasuna txirikordatzten direnean, haiek zaintzeko prestasun bera duen inor ez izatea beren ingurune afektiboan.

Mendekotasunak kartzelak sortu ditu etxeetan, eta kartzela horietan badira presoak.

Era autonomoan bizitzen jarraitzeko duten ezintasunaren presoak –mendekotasunik duten herritarrak– . Eta presoak –zaintzaileak–, baita ere, berez jarduera onuragarri eta ongintzakoa den hori, ez gutxitan, norberaren adoreaen aurkako eraso bihurtzen duten oztopo pertsonal eta ingurunekoenak. Sistemari eusten diona ‘babes sozialeko armada ikusezin’ bat da, eta armada horren ‘soldaduen’ kopuruak, Espainiako datu globala hartzen badugu, ia berdintzen du mendeko pertsonena, 1.400.000 alegia. Gehienak emakumeak dira, baina etxe askotan, 80 urtetik gorako bi pertsona bizi direnean, gizonezkoa bilakatzen ari da zaintzaile nagusi.

Eta bizi-itxaropena luzatzea ekartzen ari da zainduen eta zaintzaileen arteko proportzioa gutxitzea, zaintzaileen kaltean. Egile batzuek kalkulatzten dutenez, **BPGren % 3 eta 5 artean dago ‘armada ikusezin’** horren balioa; hots, 35.000 eta 58.000 milioi euro bitartean Estatu osorako, eta 2.200 eta 3.600 milioi bitartean Euskadirako. Aldi berean, Peter Wintley Jensenek, Europako Batzordeko programen zuzendariak, adierazten duenez, ‘silver economy’ edo ‘zilarrezko ekonomia’ delakoak, 50 urtetik gorako pertsonen beharrei erantzuten dienak alegia, 2025ean gure kontinenteko lanpostuen herena baino gehiago mantenduko du.

Eredu hori, kontratu sozial inplizito hori, ez da honezkero aski herrialdearen eskaerak betetzeko. Ezta gero eta ile-urdiragoa den Euskadi batenak ere. Izan ere, Euskadin gero eta urriagoak dira haurrak, eta ‘baby boom’ belaunaldi deitu ohi dena lan jardueratik era progresiboan erretiratzen ari den une berean, baliabide publikoak murriztu, pentsioen ‘eltzeitsua’ hustu eta arrakala zabalagotu duen krisi ekonomiko bat gertatu da. Azken hamarkadetan, eredu aldaketari erantzun diote instituzioek ongizate-egiturak sustatuz eta adinekoen artatzea bermatzen saiatzeko baliabideak erabilaraziz, bereziki egoera zaugarrienean dauden adinduak kontuan izanik, familiaren ahalbideak gainditzen zirenean.

Ingurune afektiboaren konpromisoaren gainean —eta, batez ere, emakumeenaren gainean— eraikitako sistema baten izarak ezin badu aspaldi honetan gizarte zahartu baten ohearen lau izkinak estali, agente publikoek eratu duten egiturak akitzearen seinaleak erakusten ditu, eta ez da nahikoa gizarte osoak bere gain hartu behar duen erronka titanikoari bere kabuz aurre egiteko.

Baliteke, baita ere, kinka paradoxiko batean egotea gure garapen soziala, lehen munduko herrialde baten eskaerei erantzuteko gure mekanismo instituzionalen hobekuntza. Kontraesankorra badirudi ere, politika horien arrakastak eta errotzeak zurrundu egin ditzake

politika horiek berak, erronka berriei aurre egiteko garaian, aldaketa sozial gero eta bizkorrago eta konplexuagoak baitakartzate. Adin-arrakala ez da, honezkero, mehatxu potentzial bat, denoi dagokigun defizit nabarmena da, eta belaunaldien arteko lehentasunak ahalik eta erarik orekatuenean bateratzera behartzen gaitu.

Politika publikoek –osasu zerbitzuetatik pentsioen sistemaraino– bizitza luzeagoarekin eta zahartzearekin loturiko eskaerei aurre egitea helburu izango balute, gazteengan izan dezaketen eragina neurtu gabe, ez lukete belaunaldien arteko distantzia gutxituko eta, horrez gain areagotu egingo lukete, belaunaldien arteko ekitate eza. Duela gutxi plazaraturiko Eusko Ikaskuntzaren ‘Liburu Berdea’k jasotzen duenez, pobrezia tasa, Euskadin, bost aldiz handiagoa da 15 urtetik beherakoen artetik 65etik gorakoen artean baino. Ez da bidezkoa, etikaren ikuspegitik, baliabide publikoak adinaren arabera sistematikoki lerratzea, zeinahi delarik ere lerratzearen norabidea. Eta kaltegarria da, desoreka horiek, azkenean, gure eredu sozialaren iraunkortasuna hausteko arriskua areagotzen baitute.

Gertatu den aldaketa sozialaren ondorioek, esan dugunez, erronka ekar dezakete, eta bidegabekia ere izan daitezke bere hainbat parametro berri. Baina azpimarratzekoa da bizikidetzako lotura pribatuen garapen normalizatuaren emaitza ere badela, harreman horiek iraganean baino pluralagoak eta koloreaniztunagoak baitira. Eta emaitza da, halaber, bi sexuen arteko eskubideen berdintasun efektiboak –aukerei dagokienez ere hala izatea beti helburu– islatzen duen zalantzarik gabeko konkistarena. Bide neketsu horretan, eragin ukalezina izan du emakumeak lan merkatura sartu izanak, eta atzera egitea litzateke, etxeko lau hormetatik aterata independentzia irabazteko hainbeste borroka egin eta gero, beren seme-alabak eta adinekoak zaintzeko oztupoek emakumeak etxera itzultzera behartzea.

Lorpen kolektiboa da, era berean, gaurko gazteak aurreko belaunaldien motxila astunik gabe hazitakoak izatea, horrela suma baitezakete gure historiaren ibilbidean konparaziorik ez duen askatasuna, erabakitzeko ahalmena, nahiz eta, ordainetan, indibidualismoa areagotu. Eta geure buruari zorionak ematekoa da bizi-itxaropena luzatu duen herrialde batean bizitzea, Japoniak solik gainditua, inoiz ezagutu ez den laurogei urtetik gorako biztanleen kopurua baitugu. Eta herrialde honek are kontzienteagoa izan behar du merezi duela gogoeta eta ahaleginak egitea zahartzaro ona, duina, babestua eta onetsia helburu hartuta. Euskal herritar guztion eta bakoitzaren erantzukina da, gure ordezkari instituzionalak aitzindari direla, zainketa-gizarte berri baten eskakizunek ez itotzea garaipen kolektibo horiek.

Zaintza-gizarte honi ez litzaioke begiratu behar etsipenezko betebeharra balitz bezala, baizik eta gure burua giza garapenaren I+G+b-ren abangoardian kokatzeko, enpatia bizikidetz

eta konpromiso komunitarioaren oinarritzat hartuz, ikuspegi etiko batetik. Kohesio sozialerako ardatz egituratzaile gisa eratzen den XEDE KOLEKTIBO bat, orainaren eta etorkizunaren aldeko borroka baten moduan barneratu beharrekoa eta krisi klimatikoaren aurkako borrokaren ondorioekin parekagarria. Inor kanporatua eta baztertua ez sentitzea ahalbidetzen duen gizarte lagunkoiaren utopia errealtate bihurtzen duena eta zahartzeak dakartzan dementzien erronkak tokirik bila dezan, era naturalean eta ez traumatikoan.

Familiaren babesetik artatze instituzionalizatura, biak uztartzen saiatuz, jauzi egin duen ereduak ozta-ozta dugu nahikoa gaurko erronkei aurre egiteko, eta ezin du bere iraunkortasuna bermatu oso urte gutxira begira. Egunez egun bizi gara, eguneroko gorabeherak baldintzatuta, baina guztiz premiazkoa dugu lainoan zehar ikusteko gai izatea. Alarma sortzen duten datuei erantzuteko gai izatea, adibidez pentsioen gaurko sistemak ozta-ozta iraungo duela hamarkada bat, gaur ezagutzen dugun moduan. Edo baliabide eskuragarriak murriztu egingo direla, ezinbestez, soldaten erosteko ahalmenak ez badu premia sozialen arabera gora egiten, eta bi kotizatzaile erretiratu bakoitzeko baremoa berrorekatzen jarraitzen bada, zerbitzu publikoak finantzatzeko dugun ahalmenaren josturak ezin gehiago tenkatzeraino.

Baina gai ukiezinak zuzentzeko ahalmena ere behar dugu. Eta, zehazki, zaharren eta gazteen arteko bizi-egitasmoen arteko distantzia gero eta handiagoa, belaunaldien arteko itun berri bat bultzatzea saihestezin bihurtzeraino. **XXI. mendeari egokitutako kontratu sozial bat, zeinean zaharrak eskarmentu-iturritzat eta gazteak espektatiba-iturritzat hartzea uztartzen diren.** Zeinean bizitza aktiboaren zorionez luzatzeak, ahalik eta baldintzarik onenetan, ez lituzkeen oztopatuko ingurumari zail batean zahartzen direnen garapen pertsonalerako aukerak. Zeinean gaztediaren autonomia eta askatasunaren zentzuak ez duen zokoratzen zahartzen direnek ere eskubide bera dutela autonomia eta askatasun horiek babesteko, besteekiko mendekotasunik gabe egin daitekeen punturaino.

Zeinean goikoak eta behekoak zaintzea eta norberaren burua zaintzea uztartu daitezkeen. Zeinean inongo gaztek ez liokeen seme-alabarik izateari uko ekin beharrik izango, aita edo amaz arduratu behar izateagatik; zeinean inongo gurasok ez lukeen sentituko ondorengoak inolako ukazio egitera behartzen duenik, haiei dena ematen saiatu eta gero. Zeinean maitasuna ez litzatekeen dekretuz aginduko, baina maitasuna, inguruko epeltasuna, izango liratekeen zainketaren motorra. Zeinean inongo zaintzaile ez litzatekeen errudun sentituko ez iristeagatik, nekatzeagatik, gaizki esaka aritzeagatik edo tarteka bere buruaren alde egiteagatik, zeren eta, hala ebaluatzen denean, txanda hartuko bailukete behar bezala prestatu eta ordaindutako profesional arduratsu eta gaituek. Zeinean profesional horiek, zati handi batean, zainketa eginkizun laboraltzat aukeratzea akuilagarri gisa ikusten duten gazteak izango

diren. Era berean, zerbitzu sozialen alorreko langintzari hezkuntzatik beretik emango zaio prestigioa, eta garapen ekonomikorako erreferente ere bilakatu behar da.

Belaunaldien arteko itun berri bat, zeinean zahartzaroko bakardadea eta gaztaroko bakardadea leuntzen eta elkar deuseztatzen diren, babes komunitarioko sare baten bitartez.

Zeinean zainketak ez dien gehituko baliabide gutxiago dutenei beste ezberdintasun faktore bat: nola zainduko lukete inor, bestela, itxaropenik ez duten gazteek? Zeinean gizartea zahartzeari begietara so egiteko behar bezain heldua izango litzatekeen, planteatzen dituen dilema etikoei beldur eta taburik gabe aurre eginez, eta belaunaldi berriei jakinaraziz bizitzaren iragankortasunak esan nahi duena. Guztion betebeharra baita gazte askoren bidean ageri diren eta haien garapen pertsonala itotzen duten oztopoak deuseztatzea, baina, aldi berean, arazo horiek ezagutzeak ezin ditu gazte horiek salbuetsi inguruko errealitateaz kontzientzia hartzetik, ezta harekin enpatiaz jokatzearen garrantziaren kontziente izatetik ere.

Zeinean gizarte-ehunaren besteen zaintzarekiko konpromiso handiak zaurgarritasun lotsagarriak saihestuko lituzkeen, arreta instituzionala modu eragingarriagoan osatuz. Zeinean teknologia aurreratuenak komunikazio hobetzeko eta zaintza optimizatzeko erabiliko liratekeen, belaunaldien arteko hurbiltasun eta konplizitate kanalak erraztuz. **Zeinean, kontziliazioa zeharo berezkoa izango litzatekeenez, “langile ona” eta “zaintzaile ona” parekatuko liratekeen.** Zeinean etorkinen ekarria ez litzatekeen soil-soilik hartuko gutxietsitako lan-irtenbideak emateko bidetzat, baizik eta atzerritarra bere lana estimatzen duen eta prestakuntza eta baliagarritasunaren arabera ordaintzen dion komunitate batean benetan integratzen lagunduko lukeen.

Belaunaldien arteko itun berri bat, zahartzaroa eta mendekotasuna erakargarritasun urriko sektoretzat, gero eta gastu huts gehiago sortzen duten sektoretzat hartzeko arriskua gainditzeko laguntzen duena. BPGri ekarpenik egiteko, arrakastatsu diren eta ez diren jarduera ekonomikoak elkar bereizten dituen balio erantsia sortzeko, politika berritzaileak onartzeko gai ez diren sektoretzat hartzeko arriskua gainditzeko laguntzen duena. Belaunaldien arteko itun berri bat, zainketa ezkutuko edo disimulatu beharreko zerbait delako ustea gainditzeko duen. Non, osatzea ezinezkoa denez, ezin den ezer egin. Non giza duintasuna galtzeko arriskuan dagoen. Non egiten den lana eta lan hori egiten duten langileak ez duten merezitako ospe soziala jasotzen. Non, azken batean, Simone de Beauvoirek zuzen esan zuenez, “ez dugun geure burua ikusi nahi egunen batean izango garen agurearengan”.

Zaintza baldin bada gizakiaren bizitzaren zati natural bat, bertutetsua izan beharko lukeen zaintzen gaituzte-zaintzen dugu-berriz zaintzen gaituzte zirkulu horretan, zahartzeak

dakartzan erronkak pizgarritzat hartu beharko lirateke, gizarte garen aldetik aurrera egiteko. Geure buruari demostratzeko haiei aurre egiteko gauza garela, belaunaldien arteko zubi sendo eta iraunkorra eraikiko duen itun sozial berri bat sustatuz gure ongizatearen eredua indartuta. Zainketaren kultura bat jasotzeko, balioak –elkartasuna, begirunea, altruismoa, erantzukizuna, elkarrekikotasuna...–, giza indarguneak –enpatia, elkar ulertzea, entzutea, tolerantzia, baretasuna, esker ona, zorientasuna...–, ikasteak eta norberaren hazkunderako aukerak biltzen dituena.

HERRIALDEKO ITUN bat, aberastasuna sortzen duen zainketaren kultura baterako, ospe oneko zainketaren kultura bat, gure inguruko esperientziarik onenekin lotzen gaituena –bai European, bai mundu osoan–, komunitate-sentipena hauspotzen duena eta hurbiltasun, konpromiso eta erantzukizun sozialaren balio partekatuak bermatzen dituena. Egoera ekonomikoaren aldaketen aurrean tinko jarraituko duena eta ahalik eta adostasun politiko eta instituzionalik zabalenak blindatuko dituena, honek esan nahi ez badu ere eraikitakoaz ‘tabula rasa’ egin behar denik edo alderdien zilegizko eskabideak urtu behar direnik. Baina soilik adostasunak ahalbidetuko du erronkaren neurria zehaztea, hala nola adostasun hori bera mailaz maila koipeztatzea, gure bizikidetzaren eraikinaren horma nagusietako bat bihurtu arte.

Horregatik guztiagatik, agiri honen sustatzaileok, Aubixa Fundazioak deituta eta gutariko bakoitzak Euskadiren orain eta geroarekin duen konpromiso pertsonala iturburu duen elkarren konpromiso gisa, **proposatzen dugu:**

INGURUMARI SOZIAL, POLITIKO ETA INSTITUZIONALA

1. Zahartzearekin loturiko erronkak eta belaunaldien arteko itun berri baten premia sartzea agenda sozial, politiko eta instituzionalean, eztabaida publikoa, proposamenen kontrastea eta herritarren mobilizazioa sustatuz. Horretarako, eta lehenbiziko urrats gisa, Eusko Legebiltzarrean ponentzia berariazko bat sortzea eskatzen dugu, ahal balitz indarrean dagoen legegintzaldia amaitu baino lehen.
2. Zaintzen errealitateari begiratzeko eta hartan fokoa jartzeko modua aldatzea, zainketa norberaren, familiaren eta kolektiboaren zama gisa ikustea gaindituz eta trakzio sozialeko faktoretzat hartuz. Begirada berri batek enpatikoa, samurra eta arretatsua bezain profesionala izan behar du, paternalismo, erruki edo interpretazio gozoegirik gabe.

3. Zainketak herrialdearen aktiboen mailara igo behar ditugu, gure BPGrako eta gure indar etikorako.
4. Herritarren kontzientziazioak, konpromiso politikoak eta instituzioen lidertzak lortu behar dituzte ahalik eta diagnostikorik partekatuen, zailtasunen azterketa integral bat eta konponbide jasangarri eta sakonak. Ahaleginak iraunkorrak izan behar du, hori eskatzen baitute XXI. mende honetako gure lehentasunek.
5. Belaunaldien arteko itun berri bat bultzatzeak eskatzen du bere oinarriek borondateak erakartzea eta oinarri horiek denboran zehar sendotzea, une zehatz batean elkar lotu ditzakeen belaunaldiez gaindi. Eta behar bezain malgu eta iragazkorra izan behar du, aldaketa sozialen abiada biziari egokitzeko.
6. Ekosistema sustatu eta egokitzea, lankidetzaren publiko-pribatu integral eta koordinatu baterako.
7. Ekimen politikoko lerro zehatz batzuk gauzatzea, bidean jarraitzen dutenak eta bide berriak zabaltzen dituztenak lau arlo erabakigarritan:
 - a. Jaiotza kopurua, helburu nagusi batekin: gizonik edo emakumerik ez egotea bere bizitza profesionalarekin bateraezina delako seme-alabarik izan ezin duena. Lanaldien arrazionalizazioa eskatzen du, besteak beste, horrek. Baita soldata duin bat ere, gure ongizatearen eredia eta agente publikoen eta herritarren arteko erantzukizun erdibanatua jasangarriak izatea nahi baldin badugu
 - b. Etorkinak, benetako integrazio proaktibo eta planifikatua helburu hartuta, kohesio sozialaren alde eginez, eta ez gurekin geratzen den atzeritarraren asimilatze huts batez, 'menak' barne. Haien sarrera sustatzea, besteak beste, zainketen lan sektorera, prestakuntza emanez –LHren bitartez, adibidez– eta profesionalizatuz.
 - c. Berdintasuna. Biztanleen erdia –emakumeak– kanpoan utziz gero beste hainbat gizarte eremu garatu ezin den bezala, ezinezkoa da Euskadi benetako zainketa-gizarte bilakatzea, baldin eta erantzukizunak emakumeen gain, nagusiki, geratzen jarraitzen badu.
 - d. Pentsioak. Presazkoa da orain arte dagoen eztabaida- eta ekimen-markoa suspertzea, eta marko hori Toledoko Ituna baizik ez da. Horrek ez ditu kaltetu

behar, hala ere, Euskadik, bere autogobernuari esker, gauzatu ditzakeen neurriak.

HEZKUNTZA

1. Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergorako irakasgai derrigorrezko bat sortzea, zainketari eta harekin loturiko balioei buruz hezitzeko, genero ikuspegia kontuan hartuz.
2. Unibertsitatean, eskola kredituak eskaintzea, zainketarekin loturiko prestakuntzagatik eta boluntariotzako orduengatik, aldez aurretik berariazko prestakuntza derrigorrezkoa hartuta. Eta lan praktikak, kredituekin baita ere, zainketarekin loturiko entitateetan.
3. Zainketen eremuko lan boluntarioarekin loturiko beken katalogoa egitea.
4. Zainketari buruzko irakasgai tronkal bat sartzeari osasunaren profesionalen derrigorrezko prestakuntza eta haien hurbilekoak edo osagarriak diren karreretan (Psikologia, Irakasle Ikasketak...).
5. Pertsonetarako arretari buruzko prestakuntza ematea, ofizio berriak barruan hartzen dituen Lanbide Heziketaren bidez, bateko eta besteko berezitasunak baztertuko lituzkeen eta lanean ari diren profesionalak birgaitzeko baliagarria izango litzatekeen 'basque center' bat sortzeko aukera ere kontuan izanik.
6. Zainketa/belaunaldien arteko itunari buruzko katedra bat sortzea, ekimen publikoak eta pribatuak elkarrekin finantzatua, ezagutza eta prestakuntzarako bideak finkatzeko.
7. Aipaturiko alorrekin loturiko ikerketa-lerro bat bultzatzea IKERBASQUEn.
8. Bizitza osoan zehar ikastea sustatzea eta akuilatzea, hezkuntza sistemaren bitartez, lehentasunez LHren bidez.

BERARIAZKO ZERBITZUAK

1. Zerbitzu-sare berritzaile bat eratzea, honako eginkizunotarako;
 - a. Aurreikustea:
 - Erretiratuen elkarteak zentro komunitario bihurtzea, adineko pertsonei eta zaintzaileei laguntzeko, hala nola hauskortasun fisiko, kognitibo eta sozialaren aurka egunero borroka egiteko. Zentro hauek

osasan zerbitzuekin (lehen mailako arreta) harremanetan lan egin behar dute.

- Hurbiltasunezko zerbitzuak eta zainketak hobetzeko haien lana indartu eta areagotzea (etxez etxe janariak zerbitzatzen dituzten elikadura-dendak, nolabait gainbegiratuak, bakardadea detektatzen eta leuntzen laguntzen duten botikak...).

b. Arreta egitea:

- Nahierako egoitza-zerbitzuak, ahal den neurri osoan. Egoitzak, gainera, belaunaldien arteko harremana errazten duten gune bilakatu behar dira (sortuz, adibidez, aitona-amonak bisitatzera doazen haurrentzako jolas eremuak).
- Etxez etxeko zerbitzu malguagoak, orientazio neurri berean sozial eta sanitarioarekin. Agureak eta/edo mendeko pertsonak egoitzetan sartzeko unea ahalik eta gehien atzeratzea ahalbidetzen duen katalogoa, hori baita hainbat ikerketa soziologikotan jaso den nahi nagusia.
- Zerbitzu integratuen bikintasunezko sare bat sustatzea.

2. Zahartzearekin loturiko zerbitzuen gobernantza eraberritzea.

- a. Zainketak integratzeko egitasmoak bultzatzen dituzten zerbitzuak abian jartzea. Egitasmo horiek ebaluatu behar dira.
- b. Dementzien arreta integralerako dispositibo berriak sortzea (lehen mailako arretako profesional prestatuek eginiko detektatze goiztiarra, neurologian diagnostikatzea, eta partekatzen edo bilakabide ezezagunekoak diren kasuetan neurologia eta psikiatriaren arteko lankidetzaz errazagoa, jarraipen aktiboa gizarte zerbitzuen aldetik...).

3. Etxez etxeko arretarako berariazko talde komunitarioak sortzea, arreta hori artatze zentroen (egoitzak eta eguneko zentroak) ikuspegi terapeutikoz hornituz eta zaintzatik hurbilago dauden figura profesional berriak sartzeko sustatuz (LHK ezinbesteko eginkizuna du alor honetan).

ZUZENBIDE ETA ESKUBIDEEN EREMUA

1. Sistema judiziala kokatzea belaunaldien arteko itun berri baterako gizarte-egitasmoko kolektibo baten barruan. Sistema horretan ez dago oraindik biztanleriaren zahartze eta autonomiaren galerari buruzko ikuspegi globalik. Justizia ez da bizitzatik at dagoen tankan itxiriko konpartimentu bat: gure bizitzen zati bat da. Eta legegintza-markoak herritarren erantzukidetasunari eusten lagundu behar du, gure zuzenbidezko Estatuaren oinarri gisa.
2. Legegileak eta epaileak lagundu behar dute bizitzatik heriotzarako igarotzean, mendekotasun egoeran gauzatzen denean. Errealitate hau islatzen du epaileen laguntzaren gero eta eskaera handiagoak, eta eskaera horri ahalik eta erantzun indibidualizatuagoa eman behar zaio.
3. Independentziatik mendekotasunera doan garapen prozesuari aurre egitea, falta dena osatzeko laguntza sustatuz, Kode Zibilean aurreikusiriko kuradorearena bezalako eginkizunekin, edo sor daitezkeen beste hainbatekin. Eta erabakiak hartzea erresidentziatuz, tutoretza bezalako alternatibekin, autonomiaren galera erabatekoaren kasuetarako.
4. ‘Desgaitze prozesuak’ aipatzen dituen terminologia aldatzea, haren ordez ‘gaitasunaren aldaketa prozesuak’ erabiliz, egokitzapen bat dela adierazteko xedez, eta horrela desgaitzearen irudia indargabetuz.
5. BIZI AGIRIA bultzatzea, bizitzatik bizitzara. Giri horrek barruan hartuko luke honezkero badagoen azken borondateen testamentua, heriotzaren trantzea kudeatzeari buruzkoa ere sartzeari eragotzi gabe; alegia, zainketa leungarriarekin loturiko heriotza duin bat eta, horrelakorik arautuko balitz, eutanasiaren alternatiba. Diseinatzea ahalbidetuko luke nola aurre egin nahi diogun gure balizko mendekotasunari –nola kudeatuko litzatekeen autonomiaren urritasuna– eta erraztuko luke erabaki hori jarraitzea eta betetzea, erabakiaren pisua babesteko bailitzateke, era aske eta kontzientean hartzen denez, eta berme juridikoekin gainera.
6. Justiziak honezkero eskaintzen duen egokitzapenezko erantzunak irautea eta arinagoa izatea lortzea; adibidez, endekatzea dakarten gaixotasunen aurrean. Lege-markoak neurriko soinekoak egitea ahalbidetzen du, eragindako pertsona bakoitzaren gorabeherari egokitzuz erantzuna. Presazkoena zera da: norbanakoaren bilakabideari

buruzko erabakiak zehaztea, familiak behartu gabe askotan neketsu eta mingarriak diren prozedurak errepikatzen.

7. Pedagogia egitea, Justizia Administrazioaren eta aginte publikoen aldetik, herritarrek egitura juridikoan bila ditzaketen bide eta irtenbideak ezagutu ditzaten. Herritarrak prestatzeak demokrazia sendotzen laguntzen du.
8. Entzuteko eta arretarako guneak sustatzea. Prozedurazko justizia baten alde egitea, enpatiaz hartuak senti daitezten hara jotzeko premia dutenak.
9. Autonomia elkartasunarekin eta komunitatearen babesarekin integratzen laguntzea. Kontua ez da araugintzatik eraikitzea, baizik eta araugintzak laguntzea errealitate berri eta aldakorrari aurre egiteko gizarteak eraikitzen duen horri.
10. Gizarteratze positiboaren alde egitea, bai adinduei bai gazteei dagokienez. Alor honetan, aldatu behar da komunitatearentzako zerbitzuak zigor gisa ikustea, gizarte-kohesioarekiko konpromisoa era sakonagoan hartzeko bidean aurrera egitearren.

ENPRESA ETA LAN MUNDUA

1. Enpresak, gizartearen beste edozein eremuk bezala, ezin du aipatu diren erronketatik at geratu.
2. Zaintzaileak, eskarmentua duten adineko langileak eta, hala balegokio, jarrera, balioa eta konpromisoa erakutsi duten boluntarioak kontratatzea errazten duen araudi bat sustatzea.
3. Ordu-tegi malguagoak eta egokiagoak sustatzen dituzten enpresa eta lan ereduak izateko bidean aurrera egitea –bizitza pertsonal eta lanaren arteko kontziliazio hobea–, emakumeen lan ibilbiderako historian zehar kaltegarri gertatu den diskriminazioa ezabatuz. Ordaindutako baimenak ahalbidetzea, baliabide publikoen laguntzaz.
4. Kontratazioak egiterakoan administrazioek darabiltzaten ebaluazio irizpideetako bat izan behar dute enpresen kontziliazio planek eta belaunaldien arteko zainketari eskaintzen zaion arretak.
5. ‘Care friendly’ diren enpresak identifikatzen duten zigilu bat sortzea, berariazko arau eta ebakuazioen bidez.

6. Zainketari prestigioa ematea, langileen baldintzak –emakumeak, gehienetan oraindik– hobetzen laguntzen duen eta gutxienez oinarrizkoa behar lukeen prestakuntza ezinbestekotzat onartzen duen legeria baten bidez. Lan aukeren merkatu berri hori prestakuntzaz hornitzen duen eta bultzatzen duen Lanbide Heziketa sustatzea (Eusko Jaurlaritzaren LH solidarioaren ekimenarekin loturik).
7. Langilearen aukerako orduak ematea lan boluntarioaren trukean.
8. Abantailak ematea zainketaren sektoreko langileen Gizarte Segurantzako kuotetan.

FISKALITATEA

1. Oro har, bizitza pertsonala eta lana kontziliatzeko neurri eragingarriak hartzen dituztela frogatzen duten enpresei zerga-arloko abantailak ematea.
2. Zainketarekin loturiko enplegua aktibatzeko zerga-arloko abantailak ematea:
 - a. Zaintzaileak, lanean jarraitu nahi duten adineko pertsonak eta arautzen den formularen arabera lana frogatzen duten boluntarioak kontratatzen dituzten enpresei.
 - b. Zaintzaileei, lanean jarraitzen duten adineko pertsonei edo boluntarioei.
3. Zainketarekin loturiko gazteen enplegurako zerga-arloko abantailak ematea –enpresak sortzearen edo kontratazioaren bidetik.
4. PFGZ berezi eta aldekoago bat bideratzea zaintzaile eta behar bezala akreditaturiko boluntarioentzat. Dagokien herritarren eta haien familien zerga-arloko profila integratzea, haien barne zainketaren agendaren eta boluntario gisa jardundako denboraren arabera, belaunaldien arteko itunaren aldietan zehar.
5. CARE FRIENDLY enpresei BEZa gutxiagotzea.
6. Mailegu ‘bigun’en katalogo bat bideratzea, zainketarekin loturiko enpresak eta inbertsioak sustatzeko.

ETZEBIZITZA ETA BIZIKIDETZA-INGURUNEAK

1. Zainketak dakarren erronkari eta belaunaldien arteko loturak berregitearen garrantziari buruzko irizpide konplexu eta zeharkakoagoa duten politikak diseinatu eta gauzatzea.
 - a. Partekaturiko etxebizitzak, ‘cohousing’ edo aldizkako jabetza bezalako figuren sustapena arautzea.
 - b. Belaunaldien arteko kontzepzioa duten etxebizitzaren eraikuntza sustatzea (adibidez, beheko eta lehen solairuak adinduentzat, eta gainerakoa, gazteen familientzat, partekaturiko gune amankomunekin).
2. Etxebizitza zainketaren trukean aldatzea baimentzea (aldirietatik hirigunera, hirigunetik aldirietara).
3. CARE FRIENDLY eraikin eta etxebizitzak sustatzea. Neurri oinarritzkoenetik hasita –arkitektura-oztopo eta mugikortasunerako eragozpenak deuseztatzen jarraitzea, kontuan izanik, adibidez, gure eraikinen heren batek ez duela igogailurik–, eta domotikaren alorreko azken aurrerapenez hornituriko etxebizitzetarantz aurrera egiteraino.
4. Hiri-inguruneetako arkitektura-oztopoak eta landa-inguruneetako garraioaren mugak deuseztatzea.
5. Euskadin etxebizitza garesti izateak dakartzan gabezia eta arazo sozialei buruzko diagnosi partekatuak ezinbestez eskatzen du kontuan hartzea zainketa-gizarte bati ere horrek dakarkion eragozpena, etxebizitza duina eskuratzea ezinezko bilakatu denean bai gazteentzat baita adinekoentzat ere. Arazoa zuzentzeko aginte publikoen ekimenek barruan hartu egin behar dute faktore hori.

TEKNOLOGIA

1. Begirada berri batetik abiatuta, une historiko bakoitzean eskura dauden baliabide teknologikoak erabiltzea. Teknologia, justizia bezala, ez da tankan itxiriko konpartimentu bat, zainketa-gizartearen esparrutik at dagoena eta, handik, prestazioak eskaintzen dizkiona. Teknologiai blaitu egin behar du gizarte hori, ez soilik osasunaren kontrol digitalean lagunduz –horrek berez dakar-eta gastu publikoari eustea–, baizik eta gizarteak zahartzeari eta haren ondorioei heltzea bideratuz eta aldeztuz.

2. Ekosistema kontrolatu, sinergiko eta koordinatuak garatzea, bai etxez etxeko arretan, bai 'cohousing' edo egoitza inguruneetan ere. Arreta profesionalizatu batean sakondu beharra dago –boluntario adituak eta aditu ez direnei prestakuntza eskaintzea barne direla–, arreta hori teknologia funtzional batez eta komunikazio sare sendoez indartuz.
3. Gizarte-teknologiari buruzko euskal Behatoki bat sortzea, irtenbide eraberritu eta berritzaileak diseinatzerakoan erreferentziazkoa izango dena.
4. Bizitza kalitatearen eta belaunaldien arteko eraldaketari buruzko lerro bat sartzea Eusko Jaurlaritza eta gainerako egitura instituzionalaren I+G+b planetan.

EGITURA BERARIAZKO ETA INTEGRALA

1. Euskadin IKZ (ikerketako kooperatiborako zentro) bat edo antzeko erakunde bat sortzea, ikerkuntza, berrikuntza eta gizarte-politiken integrazioa bultzatzeko, gizarte-politikaren eta -zerbitzuen aldaketa estrategikoetan eragingarritasunez eragiteko moduko aurrekontu nahikoa duena. Zeharkakoak egitasmo pilotu –gastu sozialaren eta azken urteotan mamituriko prestazio ekonomikoen eraldaketa barne dela– sortzeko gai den egitura bat, Euskadin era koordinatuan jarduteko lagungarria. Hots, garapen demografikoa, zahartzearen eskakizunak eta belaunaldien arteko itun berria ardatz dituen gobernantza berri baterako lagungarria izango dena.
2. Adinduek barruan hartzen eta haiek baztertzea saihesten dituen kultura bat sustatzea.
3. Belaunaldien arteko kirolen aktibazioa ahalbidetzea.
4. Komunikazio jarraitu bat aktibatzea, pertsonen arretarako zerbitzu berritzaileei buruz, startu-petatik.
5. Erabiltzaile, senitarteko eta zaintzaileentzako gaitasun digital eta zainketei buruzko prestakuntza egitarau bat sortu eta irakastea, arrakala digitala txikiagotzeko eta berau egonkortu ez dadin.

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUTE:

- RAMÓN BARINAGA OSINALDE. Economista
- LUIS GOENAGA LUMBIER. Consejero de la División de Salud de Tecnia
- FERNANDO FANTOVA AZCOAGA . Consultor social
- MÁXIMO GOIKOETXEA FERREIRO. Médico, director ejecutivo de Aubixa Fundazioa
- ARANTZA LEKUONA ARTOLA. Jefa del Servicio de Ginecología de la OSI Donostialdea
- JOSÉ FÉLIX MARTÍ MASSÓ. Neurólogo, presidente de Aubixa Fundazioa
- LOURDES PÉREZ REBOLLAR. Periodista, patrona de Aubixa Fundazioa
- IÑAKI SUBIJANA ZUNZUNEGI. Presidente de la Audiencia de Gipuzkoa
- JAVIER YANGUAS LEZAUN. Doctor en Psicología, asesor de Aubixa Fundazioa

